

KANALAK

Enpresa batek sortzen duen produktu edo zerbitzua bezeroei helarazteko eta jendea horien jakinaren gainean egoteko dauden bideak dira kanalak. Hau da, publizitatea egiteko bide desberdinak dira. Guk, gure proiektua jendeak ezagut dezan, hainbat estrategia baliatuko ditugu, bide batez, jendea erakartzeko. Gazte park proiektuan, nagusiki, kanal propioko publizitatea nagusituko da. Beraz, gure enpresak berak egingo du gure zerbitzuaren propaganda, hainbat estrategiaren bitartez: Web-orri baten sorrera, sare sozialak, kartelak, etab.

Hasteko, aurretik aipatu bezala, gure web-orri propioa sortuko dugu. Bertan, gure zerbitzuaren inguruko informazio guztia eta baita bertako irudiak ere ipiniko ditugu, koltxoneten zonaldekoenak, kirolen zonaldekoenak, tabernarenak... Hala, bezeroek gure zerbitzuak ezagutzeko aukera izango dute, eta, bide batez, bertara etorraziko ditugu, hots, bezeroak erakartzeko baliatuko dugu. Web-orria kudeatzeaz Eneritz arduratuko da, bere abilezia nagusienetan antolakuntzarako gaitasuna aurkitzen delako.

Gainera, sare sozialetan kontuak sortuko ditugu, Instagram, Tik Tok eta antzerakoetan, gure zerbitzua ezagutzera emateko. Bertan, gure egunerokotasunaren zenbait alderdi erakutsiko ditugu. Hala, bezeroekin gertutasuna bermatuko dugu eta bezeroek gure zerbitzuak ezagutu ahal izango dituzte. Halaber, sare sozialetako kontuen bidez, gure zerbitzua ezagutzera emango dugu, izan ere, publizitatea egitea beharrezkoa dugu gure enpresa ezagutzera emateko eta bezeroak erakartzeko. Sare sozialen kudeaketa Unaxen ardura izango da, izan ere, jendearekin harreman asko ditu, pertsona irekia da, sormen handiko mutila da, eta, gainera, aldaketetara ohitzeko gaitasuna du. Beraz, sare sozialak egunetik egunera aldatzen ari diren plataformak direla kontuan hartuta, bere gaitasun horiek benetan baliagarriak izango dira.

Horrez gain, gure irekiera data edota egun puntual eta nabarmenak promozionatzeko, inguruko herri, ikastola, eta eremu jendetsuetan kartelak ezarriko ditugu. Modu honetan, kaletik, jendeak karteekin topo egin eta gure zerbitzuak ezagutzeko aukera izateaz gain kuriositatea piztu eta bezeroak erakarri ahal izango ditugu. Kartel hauetan, besteak beste, gure eremuren eta planari buruzko informazioa agertuko da eta baita gurekin kontaktuan jartzeko informazioa ere. Kartelen prozesua aurrera eramateaz arduratuko dena, Negu izango da, izan ere, bere buruarengan konfiantza handia duen pertsona da. Beraz, kartelen prozesua burutzeko garaian konfiantza osoz eramango du aurrera lana. Amaitzeko, aldaketetara ohitzeko gaitasuna duenez, kartelak ustekabean argitaratu behar badira, erronkak ilusioz hartu eta lana burutzeko ez du arazorik izango.

Ondorioz, aurretik aipatutako web-orria, sare sozialak, eta kartelen bitartez, gure proiektua ezagutzera ematea lortuko dugu eta arrakastatsua izateko aurrerapauso bat emango dugu. Gainera, publizitatearen atal

ezberdinak taldekideen artean banatuta egongo direnez, lana anitza eta sormenezkoa izango da. Azkenik, gure bezeroak jakinaren gainean egongo direnez, bezero zahar zein berriak erakarriko ditugu.